Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala — Boletín Oficial de Gipuzkoa

2022ko abuztuaren 2a, asteartea — 146 — Martes, a 2 de agosto de 2022

TOKI ADMINISTRAZIOA — 3 — ADMINISTRACIÓN LOCAL

## BERGARAKO UDALA

*Iragarkia*

Udalbatza Osoak 2022ko maiatzaren 30ean hartutako behin-behineko erabakia jendaurrean jartzeko epea amaitu eta erreklamaziorik ez denez aurkeztu, Gipuzkoako Toki Ogasunei buruzko uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauan ezarritakoari jarraituz behin betiko bihurtzen da Ordenantza Fiskalen aldaketa. Aldatutako testuak honako hauek dira:

*1. Zerbitzu publikoak eskaini eta jarduera administratiboak burutzeagatik ordaindu beharreko tasen Ordenantza arautzailearen epigrafe hauek aldatzea.*

*K epigrafea: Udal frontoiak, igerilekuak eta kiroldegiko instalazioak.*

Ikastaroen tasak 2022-2023 ikasturterako hauek dira:

## AYUNTAMIENTO DE BERGARA

*Anuncio*

Finalizado el plazo de exposición pública del acuerdo provisional adoptado por el Pleno del Ayuntamiento el 30 de mayo de 2022 sin que se hayan presentado reclamaciones, de conformidad con lo establecido en la Norma Foral 11/1989, de 5 de julio, de Haciendas Locales de Gipuzkoa, se eleva a definitiva la modificación de las Ordenanzas Fiscales. Los textos modificados son los siguientes:

*1. Modificación de los siguientes epígrafes en la «Ordenanza reguladora de tasas por prestación de servicios públicos y realización de actividades administrativas».*

*Epígrafe K: Frontones, piscinas e instalaciones polideportivas municipales.*

Para el curso 2022-2023, las tasas de los cursillos son las siguientes:

| | *Abonatuak* | | *Ez abonatuak* | |
|---|---|---|---|---|
| | *2022* | *22/23* | *2022* | *22/23* |
| Ikastaroak | | | | |
| Astean saio bateko jarduera | 12,10 € | 12,50 € | 24,72 € | 25,54 € |
| Astean bi saioko jarduera | 24,20 € | 25,00 € | 49,45 € | 51,08 € |
| Egokitua, ur terap., gim senior | 24,20 € | 25,00 € | 24,20 € | 25,00 € |
| Astean saio bateko igeriketa | 14,15 € | 14,62 € | 28,84 € | 29,79 € |
| Astean bi saioko igeriketa. akuafit. aerofit. | 28,30 € | 29,23 € | 57,67 € | 59,57 € |
| Areto bizikleta, bi saio astean | 26,37 € | 27,24 € | 53,78 € | 55,55 € |
| Plaza erreserba gabeko jarduerak | 18,15 € | 18,75 € | 37,09 € | 38,31 € |
| Haur ur jarduerak | 58,26 € | 60,18 € | 117,77 € | 121,66 € |
| Padela | 26,30 € | 27,17 € | 53,66 € | 55,43 € |
| Yoga | 24,20 € | 35,00 € | 49,45 € | 75,00 € |
| Ikastaro puntualak | | | | |
| Gehienez 8 partaide, 2 saio | 40,37 € | 41,70 € | 52,48 € | 54,21 € |
| Gehienez 14 partaide, 2 saio | 32,29 € | 33,36 € | 41,97 € | 43,36 € |
| Kirol kanpusa, 18 partaide 3 aste | 83,00 € | 85,74 € | 169,00 € | 85,74 € |
| Zure erara | | | | |
| 1-7 pertsona | 42,04 € | 43,43 € | 55,90 € | 57,74 € |

EK\CV GAO-I-2022-04988

| | Personas abonadas | | Personas no abonadas | |
|---|---|---|---|---|
| | 2022 | 22/23 | 2022 | 22/23 |
| Cursos | | | | |
| Actividad de una sesión por semana | 12,10 € | 12,50 € | 24,72 € | 25,54 € |
| Actividad de dos sesiones por semana | 24,20 € | 25,00 € | 49,45 € | 51,08 € |
| Adaptada, terap. acuática, gimn. senior | 24,20 € | 25,00 € | 24,20 € | 25,00 € |
| Natación de una sesión por semana | 14,15 € | 14,62 € | 28,84 € | 29,79 € |
| Natación de dos sesiones por semana. aquafit. aerofit. | 28,30 € | 29,23 € | 57,67 € | 59,57 € |
| Ciclismo de salón, dos sesiones por semana | 26,37 € | 27,24 € | 53,78 € | 55,55 € |
| Actividades sin reserva de plaza | 18,15 € | 18,75 € | 37,09 € | 38,31 € |
| Actividades acuáticas infantiles | 58,26 € | 60,18 € | 117,77 € | 121,66 € |
| Pádel | 26,30 € | 27,17 € | 53,66 € | 55,43 € |
| Yoga | 24,20 € | 35,00 € | 49,45 € | 75,00 € |
| Cursillos puntuales | | | | |
| 2 sesiones, máximo 8 participantes | 40,37 € | 41,70 € | 52,48 € | 54,21 € |
| 2 sesiones, máximo 14 participantes | 32,29 € | 33,36 € | 41,97 € | 43,36 € |
| campus deportivo, 18 participantes, 3 semanas | 83,00 € | 85,74 € | 169,00 € | 85,74 € |
| "A tu gusto" | | | | |
| 1-7 personas | 42,04 € | 43,43 € | 55,90 € | 57,74 € |

*L epigrafea: Udal Euskaltegia.*

— Ikasturteko tarifak.

Tasa orokorra: 1,19 €/orduko.

C1 maila: 1,25 €/orduko.

C2 maila: 1,55 €/orduko.

AISA ikastaroa: 10 €.

Euskalkia eta hika ikastaroak: 15 €.

DBHko hizkuntza-errefortzuak: 10 €.

Oinarrizko matrikula (OM): % 15eko beherapena izango du; langabetu, bekadun eta tarifa sozialaren onuradunek, berriz, % 25ekoa. Hobari hau ikasle guztiei aplikatuko zaie, baita Bergaran erroldatuta ez daudenei ere.

Tarifa soziala: Tarifa soziala izango dute Oinarrizko Errenta/Etxebizitza-gastuetarako diru-sarrera osagarria edo Gizarte Larrialdietarako Laguntzen onuradun direnek. OMaren % 25 ordainduko dute. Ikastaro-amaieran, baldintzak betez gero, ordaindutako kopuru osoa itzuliko zaie.

Beka: OMaren % 50 ordainduko dute. Beka-eskaria onar dadin, etxeko bizikide-kopurua kontuan hartuta, eskatzaileek gehienez ere honako diru-sarrera garbia (likidazio-oinarria) izan beharko dute:

*Epígrafe L: Euskaltegi Municipal.*

— Tarifas para el curso.

Tasa general: 1,19 €/hora.

Nivel C1: 1,25 €/hora.

Nivel C2: 1,55 €/hora.

Curso AISA: 10 €.

Cursos de dialecto y tratamiento «hika»: 15 €.

Refuerzos lingüísticos en ESO: 10 €.

Matrícula Básica (MB): Tendrá un descuento del 15 %, mientras que las personas en desempleo, las becarias y las beneficiarias de la tarifa social tendrán un un descuento del 25 %. Esta bonificación se aplicará a todo el alumnado, incluso a personas no empadronadas en Bergara.

Tarifa social: Contarán con tarifa social las personas beneficiarias de Renta Básica/Complemento para gastos de vivienda o Ayudas de Emergencia Social. Abonarán el 25 % de la MB. Al finalizar el curso, en caso de cumplir los requisitos para ello, se les devolverá toda la cuantía abonada.

Beca: Abonarán el 50 % de la MB. Para la aprobación de la solicitud de beca, y en función del número de convivientes en el domicilio, las personas solicitantes no podrán superar como máximo los siguientes ingresos netos (base liquidable):

| Bizikide-kopurua | Diru-sarrera garbia | Bizikide-kopurua | Diru-sarrera garbia |
|---|---|---|---|
| 1 | 13.236,00 € | 4 | 36.421,00 € |
| 2 | 22.594,00 € | 5 | 40.708,00 € |
| 3 | 30.668,00 € | 6 | 43.945,00 € |

EK\CV GAO-I-2022-04988

| *Número de miembros de la unidad convivencial* | *Ingresos netos* | *Número de miembros de la unidad convivencial* | *Ingresos netos* |
|---|---|---|---|
| 1 | 13.236,00 € | 4 | 36.421,00 € |
| 2 | 22.594,00 € | 5 | 40.708,00 € |
| 3 | 30.668,00 € | 6 | 43.945,00 € |

Eskaria egiteko, honako agiriak aurkeztu beharko dituzte Udal Euskaltegiko idazkaritzan:

1. Aurreko urteko errenta-deklarazioaren kopia edo egin ez izanaren zergatia adierazten duen ziurtagiria.

2. Bizikidetza-agiria.

Ikastaro-amaieran, baldintzak betez gero, ordaindutakoaren % 60 itzuliko zaie.

Familia bereko kideak: Elkarrekin bizi diren familia bereko bi lagunek izena emanez gero, 1,5 matrikula ordainduko dute; hiruk emanez gero, berriz, bi matrikula. Bizikidetza-agiria aurkeztu beharko dute Udal Euskaltegiko idazkaritzan.

Familia ugariak eta erretiratuak: Familia ugarien txartela eta pentsionista-txartela aurkeztu beharko dituzte, hurrenez hurren, Udal Euskaltegiko idazkaritzan. Ikastaro-amaieran, ordaindutako kopuruaren % 60 itzuliko zaie.

Langabetuak: OMaren % 50 ordainduko dute. Bizitza laborala deritzon agiria aurkeztu beharko dute Udal Euskaltegiko idazkaritzan. Ikastaro-amaierako diru-itzulketari dagokionez, honela jokatuko da:

a) Ikasturte-hasierako matrikula ordaintzerakoan langabetuendako hobaria jaso zuen ikaslearen diru-itzulketa zehazterakoan:

— Urri-ekain bitartean 4,5 hilabetetik gora lan egin badu, ikasleak ez du itzulketarik jasoko.

— Urri-ekain bitartean 4,5 hilabetetik behera lan egin badu eta asistentziaren % 85 bete badu, ordaindutakoaren % 20 jasoko du.

— Urri-ekain bitartean batere lanik egin ez badu eta asistentziaren % 85 bete badu, ordaindutakoaren % 50 jasoko du.

b) Ikasturte hasieran hobaria jaso ez, baina gerora langabezian izan den (edo dagoen) ikasleari dagokionez:

— Urri-ekain bitartean 4,5 hilabetetik gora lan egin badu eta asistentziaren % 85 bete badu, ordaindutakoaren % 25 jasoko du.

— Urri-ekain bitartean 4,5 hilabetetik behera lan egin badu eta asistentziaren % 85 bete badu, ordaindutakoaren % 50 jasoko du.

Ikasleak: Ikasle-txartela aurkeztu beharko dute Udal Euskaltegiko idazkaritzan. Ikastaro-amaieran, baldintzak betez gero, ordaindutakoaren % 50 itzuliko zaie.

Birmatrikulazioa: Dagokien OMaren % 75 ordainduko dute, betiere aurreko ikasturte amaierako dirulaguntza jasotzeko baldintzak beteak badituzte.

Gainerako ikasleei, ikasturte-amaieran, ordaindutakoaren % 25 itzuliko zaie, baldintzak betez gero.

Dirulaguntza hauek jasotzeko, nahitaezkoa izango da Bergaran erroldatuta egotea (Oinarrizko matrikulari dagokion hobaria izan ezik). Ikasturte-amaierako diru-itzulketak jasotzeko, berriz, baldintza hauek bete beharko dira: Bergaran erroldatuta egotea, ikasturtea amaitzea eta % 85eko asistentzia izatea.

Para realizar la solicitud, deberán presentar en la secretaría del Euskaltegi Municipal los siguientes documentos:

1. Copia de la declaración de la renta del año anterior o certificado que acredite el motivo de no haberla realizado.

2. Certificado de convivencia.

Al finalizar el curso, en caso de cumplir los requisitos para ello, se les devolverá el 60 % de la cuantía abonada.

Miembros de la misma familia: En caso de inscribirse dos personas convivientes de la misma familia, abonarán el equivalente a matrícula y media (1,5); en caso de ser tres, abonarán el equivalente a dos matrículas. Deberán presentar el certificado de convivencia en la secretaría del Euskaltegi Municipal.

Familias numerosas y personas jubiladas: Deberán presentar el carnet de familia numerosa y la tarjeta de pensionista, respectivamente, en la secretaría del Euskaltegi Municipal. Al finalizar el curso, se les devolverá el 60 % de la cuantía abonada.

Personas en desempleo: Abonarán el 50 % de la MB. Deberán presentar el documento de Vida Laboral en la secretaría del Euskaltegi Municipal. En cuanto a la devolución económica al finalizar el curso, se procederá del siguiente modo:

a) En caso de que al comienzo del curso al abonar la matrícula el/la alumno/a hubiera obtenido la bonificación por desempleo, a la hora de calcular la devolución:

— Si entre octubre y junio ha estado trabajando más de 4,5 meses, no se le devolverá nada.

— Si entre octubre y junio ha estado trabajando menos de 4,5 meses y ha cumplido una asistencia del 85 %, recibirá el 20 % de la cuantía abonada.

— Si entre octubre y junio no ha trabajado nada y ha cumplido una asistencia del 85 %, recibirá el 50 % de la cuantía abonada.

b) En cuanto al alumno/a que en el inicio de curso no obtuvo bonificación, pero que posteriormente ha estado (o está) en desempleo:

— Si entre octubre y junio ha estado trabajando más de 4,5 meses y ha cumplido una asistencia del 85 %, recibirá el 25 % de la cuantía abonada.

— Si entre octubre y junio ha estado trabajando menos de 4,5 meses y ha cumplido una asistencia del 85 %, recibirá el 50 % de la cuantía abonada.

Estudiantes: Deberán presentar el carnet de estudiante en la secretaría del Euskaltegi Municipal. Al finalizar el curso, en caso de cumplir los requisitos para ello, se les devolverá el 50 % de la cuantía abonada.

Rematriculación: Abonarán el 75 % de la MB que les corresponda, siempre que hayan cumplido los requisitos para acceder a la subvención del final de curso anterior.

Al resto del alumnado, al finalizar el curso, si cumplen los requisitos para ello, se les devolverá el 25 % de la cuantía abonada.

Las personas que quieran acceder a estas subvenciones deben estar empadronadas en Bergara (excepto para la bonificación correspondiente a la Matrícula Básica). Para acceder a las devoluciones de fin de curso, deberán cumplir los siguientes requisitos: estar empadronadas en Bergara y haber finalizado el curso con una asistencia del 85 %.

EK\CV GAO-I-2022-04988

*Ordenantza berean, X Epigrafea sortuko da, Arin Eguneko Arreta Zerbitzua izenarekin.*

Eguneko arreta-zerbitzuagatik egin beharreko ekarpen ekonomikoa ondorengoa da:

A) Ahalmen ekonomikoaren kalkulua:

Errenta balioetsiz kalkulatuko da ahalmen ekonomikoa.

Errenta gisa ulertzen da onuradunak edo onuradunek honako bide hauetatik guztira jasotzen dituzten diru-sarrera garbiak:

1. Lanaren etekinak, barne direla pentsioak eta gizarte aurreikuspeneko prestazioak, edozein erregimenetakoak direla ere; aldi baterako edo biziarteko errentak, eta Diru Sarrerak Bermatzeko Errenta.

2. Kapital higigarriaren nahiz higiezinaren etekinak.

3. Enpresa edo lanbide jardueren etekinak.

Errenta kalkulatzean, ez dira diru-sarrera modura hartuko:

— Etxebizitza Prestazio Osagarria, KGPen titularrentzako etxebizitzaren osagarria eta Etxebizitza Legetik erator litezkeen laguntzak.

— Autonomia pertsonala sustatzeari eta menpekotasun egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzko legetik eratorritako prestazio ekonomikoak.

— Seme edo alaba adingabe bat ardurapean edukitzeagatiko Gizarte Segurantzako Institutuaren prestazio ekonomikoa.

— Lanbide zentro batean jarduteagatik jasotako haborokin ekonomikoak.

— Aurretiko ohiko etxebizitza batetik alde egin behar izanez gero arkitektura-oztopoengatik edo salbuespenezko arrazoi batengatik (genero-indarkeriaren biktima...), etxebizitza haren alokairutik jasotakoa, etxebizitza berria alokatzeko edo erosteko kredituaren gastuei aurre egiteko beharrezko zenbatekoraino (etxebizitza berriaren gastuaren zenbatekoa gainditzen ez duen partea). Zenbateko baten eta bestearen artean gaindikinik balego, diru-sarrera gisa hartuko da.

Diru-sarrera guztietatik, honako hauek kenduko dira:

1. Ebazpen judizial bidezko banantzeagatiko konpentsazio pentsioen edo/eta gurasoen eta seme-alaben arteko neurriengatikoen ordainketa, halakorik balego; sarrera horiek kanpo uzteko, dagokien justifikazioa aurkeztu beharko da.

2. Zerbitzuen aldibereko erabileragatiko ekarpenak: erabiltzailea aldi berean laguntza edo lanbide izaerako beste gizarte-zerbitzu baten onuraduna bada, urteroko bat kenduko da diru-sarreretatik, laguntza-izaerako beste zerbitzuaren gaineko eskumena duen administrazioaren ebazpen bidez ezarritako ekarpenaren eguneko prezioaren arabera.

B) Ordaindu beharreko ekarpen ekonomikoaren kalkulua.

Zerbitzuaren erabiltzaileak hilero ekarpen bat egingo du zerbitzu horretan parte hartzeagatik, eta ekarpen hori zerbitzua eskuratzeko ebazpenean jasoko da.

Ekarpena kalkulatzeko zerbitzu-erabiltzailearen urteko diru-sarrerak kontuan edukiko dira.

Zerbitzu-erabiltzailea ezkonduta badago edo ezkontza antzeko harreman egonkor bat badu, bikotearen urteko diru-sarrerak hartuko dira kontuan eta ondoren errenta bi zatitan banatuko da.

Seme-alabak edo beste senitarteko batzuk zerbitzu-erabiltzailearekin bizi badira, elkarbizitzako kide direla ulertuko da ekonomikoki mende badaude. Ekonomikoki mende daudela baloratuko da, senitartekoak Lanbide arteko Gutxieneko Diru-sarrera (LGS) baino % 75eko diru-sarrera txikiagoak baditu. Kasu honetan, elkarbizitzako kide guztien urteko diru-sarrerak batuko dira eta errenta kide kopurugatik zatituko da.

*En la misma ordenanza, se creará el Epígrafe X, con la denominación de Servicio Arin de Atención Diurna.*

La aportación económica que se ha de realizar por el servicio de atención diurna es la siguiente:

A) Cálculo de la capacidad económica:

La capacidad económica se calculará valorando la renta.

Se entiende por renta el total de ingresos netos que percibe la persona o personas beneficiarias por las siguientes vías:

1. Rendimientos del trabajo, incluidas las pensiones y las prestaciones de previsión social, cualquiera que sea su régimen; las rentas temporales o vitalicias, y la Renta de Garantía de Ingresos.

2. Rendimientos de capital mobiliario o inmobiliario.

3. Rendimientos de actividades empresariales o profesionales.

En el cálculo de la renta no se considerarán ingresos:

— La Prestación Complementaria de Vivienda, el complemento de vivienda para titulares de PNC y posibles ayudas derivadas de la Ley de Vivienda.

— Las prestaciones económicas derivadas de la Ley de Promoción de la Autonomía Personal y Atención a las personas en situación de dependencia.

— Prestación económica del Instituto de la Seguridad Social por hijas/os menores a su cargo.

— Gratificaciones económicas recibidas por asistencia a centro ocupacional.

— El alquiler que se perciba de una anterior vivienda habitual que se haya tenido que abandonar por barreras arquitectónicas o por circunstancias excepcionales (víctimas de violencia de género...) hasta la cuantía que resulte necesaria para hacer frente a gastos de alquiler o crédito para acceder a una nueva vivienda (en la parte que no exceda el importe del gasto de la nueva vivienda). Si hubiera un exceso entre una y otra cuantía, se computaría como ingreso.

De la totalidad de ingresos, se descontará:

1. El pago de pensiones compensatorias por separación y/o medidas paterno-filiales si las hubiera, según sentencia judicial, presentando la justificación correspondiente.

2. Las aportaciones por uso simultáneo de servicios: cuando la persona usuaria sea simultáneamente beneficiaria de otro servicio social de carácter asistencial u ocupacional, se deducirá de los ingresos una anualidad en función del precio/día de la aportación establecida por resolución de la administración competente del otro servicio de carácter asistencial.

B) Cálculo de la aportación económica a realizar.

La persona usuaria del servicio realizará una aportación mensual por su participación en el mismo, que se recogerá en la resolución de acceso al servicio.

Para el cálculo de la aportación se tendrán en cuenta los ingresos anuales de la persona usuaria del servicio.

Si la persona usuaria del servicio está casada o mantiene una relación estable análoga a la conyugal, se tendrán en cuenta los ingresos anuales de la pareja y posteriormente la renta se dividirá en dos partes.

En el caso de que los/as hijos/as u otros/as familiares convivan con la persona usuaria del servicio, se entenderá que forman parte de la unidad convivencial si dependen económicamente de ellos. Se valorará que existe dependencia económica si el familiar tiene unos ingresos inferiores al 75 % del Salario Mínimo Interprofesional (SMI). En este caso, se sumarán los ingresos anuales de todos las personas que componen la unidad convivencial y se dividirá por el número de miembros.

EK\CV GAO-I-2022-04988

Ahalmen ekonomikoa erabiltzailearen diru-sarreren araberakoa izango da, urteko diru-sarrera garbiak kontuan hartuta:

—Kapital higigarriaren urteko etekin garbia.

—Kapital higiezinaren urteko etekin garbia.

—Urteko diru-sarrera arrunt garbiak.

Programari ekarpen ekonomikoa egiteko lau tarte ezarriko dira, erabiltzailearen gaitasun ekonomiko indibidualaren mailaren arabera.

2022ko ekarpenak honakoak izango dira:

| *Erabiltzailearen gaitasun ekonomiko indibiduala* | *Hileko aportazioa (€)* |
|---|---|
| LGS baino gutxiago | 5 |
| LGS eta bi aldiz LGS tartean | 10 |
| 2 LGS eta 4 LGS tartean | 30 |
| 4 aldiz LGS gorakoak | 60 |

C) Beste zerbitzu batzuk batera erabiltzea.

Erabiltzailea aldi berean Gizarte Zerbitzuetako Zorroaren beste zerbitzuen onuradun ere izanez gero, hark ordaindu beharreko kopurua kalkulatzeko, dagokion zerbitzuari egin beharreko ekarpen osoa kenduko da diru-sarreretatik.

D) Beste xehetasun batzuk.

— Ekarpenak ez du zerikusirik izango pertsona hileko saio guztietara edo batzuetara joatearekin, ez eta zerbitzua hilabete horretan aktibo dagoen egunekin ere.

— Ekarpena urtean 11 hilabetez egingo da (abuztuan izan ezik). Zerbitzua abuztuan eskaintzen bada, dagokion ekarpena ere egingo da.

— Behin Zerbitzuan alta emanda, bakoitzak egin beharreko ekarpena bere osotasunean ordaindu beharko da nahiz eta hilabete osoan ez erabili zerbitzua.

— Hilabetea hasita Zerbitzuan baja emanez gero, erabiltzaileak hala eskatuta zein dagokion aginte arduradunak horrela erabakita, hilabeteari dagokion ekarpen osoa kobratuko da.

*2. Zerbitzuak eman edo udal aginpideko jarduera administratiboak burutzeagatik prezio publikoen Ordenantza arautzailearen epigrafe hau aldatzea.*

*A epigrafea: Ludoteka (Angiozar, Osintxu eta Azokako ludotekak).*

— Azokako ludotekagatik ez da ezer ordaindu beharko.

— Angiozar eta Osintxuko ludotekak (egunero joateko izena eman daiteke).

Kuota arrunta.

1. seme-alaba: 62,00 €.

2. seme-alaba: 56,80 €.

3. seme-alaba: dohainik.

Tarifa soziala: dohainik.

*3. Udal jabari publikoaren erabilera pribatibo edo aprobetxamendu bereziagatik ordaindu beharreko tasak arautzen dituen Ordenantza aldatzea eta K epigrafea sortzea.*

*K epigrafea: Udal ortuen erabilera.*

1. Udal ortuen erabilera da tasa honen zerga egitatea.

2. Udal ortuak erabiltzeko baimenen titularrak izango dira subjektu pasiboak.

La capacidad económica vendrá determinada por los ingresos de la persona usuaria teniendo en cuenta los ingresos netos anuales:

—Rendimiento neto anual de capital mueble.

—Rendimiento neto anual de capital inmueble.

—Ingresos corrientes netos anuales.

Se establecerán cuatro franjas de aportación económica al programa dependiendo del nivel de capacidad económica individual de la persona usuaria.

Las aportaciones de 2022 serán las siguientes:

| *Capacidad económica individual de la persona usuaria* | *Aportación mensual (€)* |
|---|---|
| Inferior al SMI | 5 |
| Entre el SMI y el doble del SMI | 10 |
| Entre el doble y el cuádruple del SMI | 30 |
| Superior al cuádruple del SMI | 60 |

C) Uso simultáneo de otros servicios.

En caso de que la persona usuaria sea beneficiaria, de manera simultánea, de otros servicios de la Cartera de Servicios Sociales, para el cálculo de la cuantía que ha de abonar se deducirán de sus ingresos la totalidad de la aportación que le corresponda hacer al servicio correspondiente.

D) Otros detalles.

— La aportación será independiente de la asistencia de la persona a todas o a algunas de las sesiones del mes, así como de los días en que el servicio esté activo durante cada mes.

— La aportación se realizará durante 11 meses al año (excepto agosto). En caso de prestarse el servicio durante el mes de agosto, también se realizará la aportación correspondiente.

— Una vez dada de alta en el servicio, cada persona deberá abonar íntegramente la aportación que le corresponda, incluso aunque no se utilice el servicio durante todo el mes.

— En caso de darse de baja en el servicio una vez iniciado el mes, bien a petición de la persona usuaria o bien por decisión de la autoridad responsable correspondiente, se cobrará la aportación mensual íntegra.

*2. Modificación del siguiente epígrafe de la «Ordenanza reguladora de los precios públicos por la prestación de servicios o la realización de actividades administrativas de competencia municipal».*

*Epígrafe A: Ludoteca (Ludotecas de Angiozar, Osintxu y Mercado).*

— Por la ludoteca del Mercado no habrá que realizar pago alguno.

— Ludotecas de Angiozar y Osintxu (se puede realizar la inscripción para acudir a diario).

Cuota ordinaria.

1.er hijo/a: 62,00 €.

2.° hijo/a: 56,80 €.

3.° hijo/a: gratuita.

Tarifa social: gratuita.

*3. Modificación de la «Ordenanza reguladora de las tasas por utilización privativa o aprovechamiento especial del dominio público municipal», por la que se crea el epígrafe K.*

*Epígrafe K: Uso de huertos municipales.*

1. El hecho imponible de esta tasa es la utilización de los huertos municipales.

2. Serán sujetos pasivos las personas titulares de las autorizaciones de uso de los huertos municipales.

EK\CV GAO-I-2022-04988

3. Tasaren sortzapena urte bakoitzeko urtarrilaren 1ean egingo da eta zergaldiak urte natural osoa hartuko du, erabilpenaren hastapenean edo amaieran izan ezik. Kasu honetan, kuota proportzionalki hilabeteka banatuko da.

4. Udal ortuak erabiltzeko araudia aplikatuko da gai honetan.

5. Udal ortuen erabilera hasi aurretik 50 €-ko fidantza ezarri beharko da.

6. Udal ortuak erabiltzeagatik urteko tasa 60 €-koa izango da.

7. Udal ortuak erabiltzeagatik tarifa soziala 0 €.

Tarifa soziala aplikatzeko baldintzak:

— Elkarbizitza unitateak Bergaran erroldatuta egon behar du.

— Elkarbizitza unitateak diru-kopuru hau baino gutxiago jaso behar du:

Bi pertsonako unitate familiarra: 20.105,04 €.

Hiru pertsonako unitate familiarra: 23.776,22 €.

Lau pertsona edo gehiagoko unitate familiarra: 27.447,27 €.

*Kopuru hauek Gutxienezko Lanbidearteko Soldata oinarritzat hartuta kalkulatu dira.

Aurkeztu beharreko dokumentazioa udaletxeko erregistro nagusian:

1. NAN agiriaren fotokopia (unitate familiarra osatzen duten kide guztiena).

2. Pertsona Fisikoen Errentaren azken ekitaldiko aitorpenaren fotokopia edo, bestela, egin ez izana justifikatzeko agiria (Ogasunean emango zaio agiri hau).

3. Langabezian daudenek, Gizarte Segurantzako «lan-bizitza» agiria eta prestaziorik ez dutela jasotzen egiaztatzeko Lanbidek emandako agiria.

4. Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta (DBE) edo antzeko laguntzarik jasotzen egonez gero, ez da aurkeztu beharko 2. eta 3. puntuetako dokumentazioa; baina aurkeztu egin beharko da DBE jasotzen ari izanaren egiaztagiria (Lanbiden).

8. Udalak ortu publiko kopuruaren % 10a gordeko du interes-taldeei (irabazi asmorik gabeko elkarteak, eskolak eta antzekoak) zuzenean esleitzeko. Udalak zuzenean ortu publikoa esleitzen dien interes-taldeak salbuetsita egongo dira bai urteko tasa bai fidantza ordaintzetik.

*4. Udal jabari publikoaren erabilera pribatibo edo aprobetxamendu bereziagatik ordaindu beharreko tasak arautzen dituen Ordenantza aldatzea eta L epigrafea sortzea.*

*L epigrafea: Baserri bideen erabilera berezia.*

Erabilera berezitzat joko da baimendutako gehieneko pisu gordina (26 tona) gainditzen duten garraio-ibilgailuak baserri bideetan ibiltzea.

Edozelan ere, halako ibilgailuak bertatik pasatzea nekazaritza eta abeltzaintzako ustiategiekin zuzenki lotuta dagoenean (bazka, pentsuak, etab. eramatea), ez da erabilera berezitzat joko.

Erabilera berezitzat joko da «Udalak asfaltoz edo hormigoiz zolatutako baserri bideen aprobetxamendu berezia arautzeko onartutako Ordenantza»n hirugarren artikuluan adierazitako ibilgailuak ibiltzea, baldin eta betelanak eta basogintzako lanak egiteko bada.

3. El devengo de la tasa se producirá el 1 de enero de cada año y el período impositivo comprenderá todo el año natural, excepto al inicio o final del uso. En este caso, la cuota se prorrateará proporcionalmente por meses.

4. En esta materia será de aplicación la normativa de uso de los huertos municipales.

5. Antes de dar inicio al uso de los huertos municipales se deberá depositar una fianza de 50 euros.

6. La tasa anual por la utilización de los huertos municipales será de 60 euros.

7. La tarifa social por la utilización de los huertos municipales será de 0 euros.

Requisitos para la aplicación de la tarifa social:

— La unidad convivencial debe estar empadronada en Bergara.

— La unidad convivencial deberá percibir unos ingresos económicos inferiores a:

Unidad familiar de dos miembros: 20.105,04 €.

Unidad familiar de tres miembros: 23.776,22 €.

Unidad familiar de cuatro o más miembros: 27.447,27 €.

*Estas cuantías se han calculado en base al Salario Mínimo Interprofesional.

Documentación a presentar en el registro general del Ayuntamiento:

1. Fotocopia del DNI (de todos los miembros que componen la unidad familiar).

2. Fotocopia de la declaración de la Renta de las Personas Físicas (IRPF) correspondiente al último ejercicio, o en su defecto, justificante de no haberla presentado (este justificante se expide en Hacienda).

3. Las personas en situación de desempleo, documento de «vida laboral» de la Seguridad Social, junto con documento expedido por Lanbide en el que se acredite que no perciben prestación alguna.

4. En caso de percibir la Renta de Garantía de Ingresos (RGI) o ayuda similar, en lugar de presentar la documentación de los puntos 2 y 3, deberán presentar certificado de estar percibiendo la RGI (en Lanbide).

8. El ayuntamiento se reservará el 10 % del número de huertos públicos para su adjudicación directa a grupos de interés (asociaciones sin ánimo de lucro, centros escolares y similares). Los grupos de interés a los que el ayuntamiento adjudique directamente un huerto público estarán exentos tanto del pago de la tasa anual como de la fianza.

*4. Modificación de la «Ordenanza reguladora de las tasas por utilización privativa o aprovechamiento especial del dominio público municipal», por la que se crea el epígrafe L.*

*Epígrafe L: Uso especial de caminos rurales.*

Se considerará como uso especial el tránsito por caminos rurales de aquellos vehículos de transporte que superen el peso bruto máximo autorizado (26 toneladas).

En cualquier caso, cuando el paso de estos vehículos esté directamente relacionado con las explotaciones agropecuarias (transporte de forraje, pienso, etc.) no se considerará uso especial.

Tendrá la consideración de uso especial la circulación de los vehículos a que se refiere el artículo tercero de la aprobada «Ordenanza reguladora de aprovechamiento especial de caminos rurales asfaltados u hormigonados por el ayuntamiento», siempre que vayan destinados a la ejecución de rellenos de tierra y trabajos forestales.

EK\CV GAO-I-2022-04988

Hauek izango dira tasaren tributu elementuak: ibilgailua eta bidaia kopurua.

Interesdunek udal baimena beharko dute zolatuta dauden baserri bideak erabiltzeko.

Eskaerarekin batera, honako hauek aurkeztu behar dira derrigorrez: erabiltzailearen datuak (garraiolaria edo kontratista), ibilgailuaren datuak (matrikula, tara, baimendutako gehieneko pisua), bidaia kopurua, eraman beharreko material tonak (pisua) eta noiz hasi eta bukatuko den erabilera.

Tasa 15 eurokoa izango da, bidaiako eta ibilgailuko.

Guzti hori Gipuzkoako Hazienda Lokalak arautzen dituen uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauaren 16.4 artikuluan agindutakoa betetzearren argitaratzen da, guztiok honen berri izan dezaten eta aipatu manuan aurreikusitako eraginetarako.

Aipatu Foru Arauaren 18.1 artikuluan xedatutakoekin bat, tasa, kuota, tarifa eta ordenantzen finkapena eta aldaketa onesten zuten erabakien aurka, interesatuek Euskal Herriko Justizia Auzitegi Gorenaren dagokion Salaren aurrean administrazioarekiko auzi errekurtsoa jarri ahal izango dute bi hilabeteko epearen barruan, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo lanegunetik kontatzen hasita.

Dena den, eta aipatutako manuak baimentzen duen bezala, aipatutako interesatuek errekurtsorik jarri ahal izango dute, nahibadako izaeraz eta administraziorekiko auzitarako bidearen aurretik, Gipuzkoako Auzitegi Ekonomiko Administratibo Foralaren aurrean, aipatu argitalpenak Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo lanegunetik aurrera hasita hilabete bateko epean.

Bergara, 2022ko uztailaren 22a.—Behin-behineko alkatea.
(4988)

Los elementos tributarios de la tasa serán el vehículo y el número de viajes.

Las personas o entidades interesadas necesitarán autorización municipal para utilizar los caminos rurales pavimentados.

Junto con la solicitud, deberán presentarse obligatoriamente los datos de la persona o entidad usuaria (transportista o contratista), los datos del vehículo (matrícula, tara, peso máximo autorizado), número de viajes, toneladas (peso) de material que se ha de transportar, y fecha de inicio y de fin del uso.

La tasa será de 15 euros por viaje y vehículo.

Lo que se hace público en cumplimiento del artículo 16.4 de la Norma Foral 11/1989, de 5 de julio, reguladora de las Haciendas Locales de Gipuzkoa, para general conocimiento y a los efectos previstos en dicha norma.

De conformidad con lo dispuesto en el artículo 18.1 de la citada Norma Foral, contra los acuerdos de aprobación de establecimiento y modificación de tasas, cuotas, tarifas y ordenanzas, las personas o entidades interesadas podrán interponer recurso contencioso-administrativo ante la Sala correspondiente del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco en el plazo de dos meses a contar desde el día hábil siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.

No obstante, tal y como permite el citado precepto, dichas personas o entidades interesadas podrán interponer recurso, con carácter potestativo y previo a la vía contencioso-administrativa, ante el Tribunal Económico-Administrativo Foral de Gipuzkoa, en el plazo de un mes a partir del día hábil siguiente al de la difusión de dichas publicaciones en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.

Bergara, a 22 de julio de 2022.—La alcaldesa accidental.
(4988)

EK\CV GAO-I-2022-04988